

BERRITASUNAK

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAN (DSBE)

AZKEN EGUNERATZEAK

14/2022 legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta
Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena



lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO



Europar Batasunak
kofinantzatua
Cofinanciado por
la Unión Europea

945 160 600 • www.lanbide.euskadi.eus



A woman with dark hair is shown in profile, resting her head on her hand. She has a thoughtful or perhaps weary expression. The background is blurred, showing what appears to be a desk or office environment. The entire image is overlaid with a semi-transparent red filter.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta hilean behingo prestazio ekonomiko bat da. Oinarrizko beharrizanei lotutako gastuei aurre egiteko baliabide nahikoak ez dauzkaten pertsona eta familiei laguntzeko helburua du. Horrela, irtenbide laboralak aurkitzeko aukera ematen die.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, azaroaren 21eko 173/2023 Dekretu berria indarrean jartzen denean, DSBEaren zenbatekoa hiru hilez behin kalkulatu da.

Prestazioa **hila igarotakoan ordainduko da, hilaren 10ean**, edo hurrengo lanegunean. Adibidez, urtarrileko nomina otsailaren 12an kobratuko da.

ZENBATEKOA EGUNERATZEKO PROZEDURAREN (ZEP) BIDEZ EGUNERATUKO DA PRESTAZIOA

Zer da ZEPa?

2024tik aurrera DSBEa kalkulatzeko prozedura bat da ZEPa. **DSBEa hiru hilez behin eguneratuko da, hurrengo hiru hiletan kobratuko den zenbatekoa kalkulatzeko.** ZEParen hasiera-datan, hauek hartuko dira kontuan:

1. Une horretan **bizikidetzako unitatea (BU)** osatzen duten pertsonak.
2. **Aurreko hiruhilekoan** BUko pertsonak izandako **diru-sarrerak**.

Hortaz, BUan edo BUaren diru-sarreretan izandako aldaketak zenbatekoaren hurrengo eguneratzean hartuko dira kontuan, ez lehenago.

“ Adibidez: lehen eguneratzea (ZEPa) urtarrilean bada, hurrengo apirilean izango da. Hala, urtarrilean, otsailean edo martxoan aldaketarik bada (esaterako, seme/alaba baten jaiotza edo BUko pertsona bat lan-jarduera batean hastea), apirileko ZEPean izango du eragin ekonomikoa.

”

ZEPa egitean bakarrik aldatuko dira zenbatekoak.

3. Bizikidetzako unitatearen (BU) parte ez diren pertsonekin partekatzen bada etxebizitza, dagokion DSBEari **% 15eko** indize zuzentzaile bat **(behetik)** aplikatuko zaio.
-

Noiz gauzatzen da ZEPa?

DSBEaren onarpen-dataren arabera, espedienteari ZEP talde bat edo beste egokituko zaio. Hiru talde daude:

- 1. taldea:** urtarrila, apirila, uztaila eta urria.
- 2. taldea:** otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa.
- 3. taldea:** martxoa, ekaina, iraila eta abendua.

1. TALDEA			
URTARRILA (DSBEaren kalkulu-hila)		APIRILA (DSBEaren kalkulu-hila)	
Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:		Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:	
iraila / urria / azaroa		abendua / urtarrila / otsaila	
Kobranta-hilak:		Kobranta-hilak:	
urtarrila / otsaila / martxoa		apirila / maiatza / ekaina	
UZTAILA (DSBEaren kalkulu-hila)		URRIA (DSBEaren kalkulu-hila)	
Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:		Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:	
martxoa / apirila / maiatza		ekaina / uztaila / abuztua	
Kobranta-hilak:		Kobranta-hilak:	
uztaila / abuztua / iraila		urria / azaroa / abendua	

2. TALDEA

OTSAILA (DSBEaren kalkulu-hila)

Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:

urria / azaroa / abendua

Kobrantza-hilak:

otsaila / martxoa / apirila

MAIATZA (DSBEaren kalkulu-hila)

Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:

urtarrila / otsaila / martxoa

Kobrantza-hilak:

maiatza / ekaina / uztaila

ABUZTUA (DSBEaren kalkulu-hila)

Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:

apirila / maiatza / ekaina

Kobrantza-hilak:

abuztua / iraila / urria

AZAROA (DSBEaren kalkulu-hila)

Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:

uztaila / abuztua / iraila

Kobrantza-hilak:

azaroa / abendua / urtarrila

3. TALDEA

MARTXOA (DSBEaren kalkulu-hila)

Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:

azaroa / abendua / urtarrila

Kobrantza-hilak:

martxoa / apirila / maiatza

EKAINA (DSBEaren kalkulu-hila)

Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:

otsaila / martxoa / apirila

Kobrantza-hilak:

ekaina / uztaila / abuztua

IRAILA (DSBEaren kalkulu-hila)

Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:

maiatza / ekaina / uztaila

Kobrantza-hilak:

iraila / urria / azaroa

ABENDUA (DSBEaren kalkulu-hila)

Diru-sarrera eta errentak ikuskatzeko aztertutako hilak:

abuztua / iraila / urria

Kobrantza-hilak:

abendua / urtarrila / otsaila

Nola jakin DSBEarekin zer zenbateko kobratuko den?

ZEPa egin behar denean, **hurrengo hiru hiletarako aurreikusi den zenbatekoaren berri emateko gutun bat jasoko du onuradunak**, edo, beharrezkoa bada, dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio.

Zein da eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea?

Gutuna jasotzen duen egunetik, onuradunak **5 egun baliodun** izango ditu (hau da, lanegunak; larunbat, igande eta jaiegunak ez dira kontuan hartzen) **beharrezko dokumentuak aurkezteko**.



Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, bertan behera utziko da DSBEa.

Eta aurreikusitako zenbatekoaren inguruko arrazoibideak aurkezteko?

Epea 5 egun baliodunekoa izango da berdin-berdin.

Nola aurkez daiteke eskatutako dokumentazioa?

Arrazoibideak eta dokumentazioa epean aurkezteko, bide hauek erabiltzea gomendatzen da:

1. Sarean, gure webgunearen bidez:

BAKQ edo beste identifikazio-metodo elektronikoren bat izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikorearen bidez aurkeztu behar da.

- Dokumenturen bat eskatu bazaizu, hautatu dokumentazioa aurkezteko aukera.
- Gutunean esandakoarekin ados ez bazaude, hautatu arrazoibideak aurkezteko aukera.

NAN edo AIZ bat baduzu, BAKQ txartela eskuratzeko hitzordu bat eska dezakezu dagokizun Lanbideren bulegoan edo KZgunea zentroetan.

NAN edo AIZik ez baduzu, Nire Lanbidenet erabil daiteke; joan "Nire DSBEa" atalera eta:

- Dokumenturen bat eskatu bazaizu, hautatu dokumentazioa aurkezteko aukera.
- Gutunean esandakoarekin ados ez bazaude, hautatu arrazoibideak aurkezteko aukera.

2. Aurrez aurre:

Dagokion **bulegora joateko hitzordu bat eskatuta 945 160 600 telefonoaren** bidez.

Noiz kobratzen da?

Prestazioa hila igarotakoan ordainduko da, **hilaren 10ean**, edo hurrengo lanegunean. Adibidez, urtarileko nomina otsailaren 12an kobratuko da.



Nola aitortu behar dituzte diru-sarrerak besteren konturako langileek?

Besteren konturako langileek ez dute nominarik aurkeztu beharko. Lan-etekinak lortzeko, Gizarte Segurantzaren kotizazio-oinarriak kontsultatuko dira.

Elkarreragintasun bidez halako kontsultak egitearen aurka egin baduzu, eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu beharko duzu, dagokizun zenbatekoa kalkulatu ahal izateko.

Eta autonomo gisa lan eginez gero?

Norberaren konturako langileek SMS bat jasoko dute zenbatekoa eguneratu aurreko hilean, SMSan adierazitako hiletan lortutako diru-sarrerak aitortzeko.

Norberaren konturako langileek beren lanaren **diru-sarrera garbiak** aitortu beharko dituzte ERE-DBE-038 ereduaren bidez. Eredu hori www.lanbide.eus-en eskura daiteke, bai eta dagokion Lanbideren bulegoan ere.

ZEP bakoitza hasi aurreko hilean aurkeztu beharko da. Aurkeztu ezean, Lanbidek hileko diru-sarrerak 945 eurokoak direla zenbatetsiko du; hots, 2023ko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75.

ERE-DBE-038 eredua aurkezteko moduak kontsultatzeko, jo DSBEari maiz egiten diren galderetara www.lanbide.eus webgunean.



Gizarte Segurantzaren “Langile Autonomoen Araubide Berezian”
alta hartu izanez gero, hil hauetan jakinarazi behar dira hileko
diru-sarrerak:

PERTSONA 1. TALDEAN BADAGO:

ERE-DBE-038 ereduaren aurkezpena:

ABENDUA

Aitortzen diren hilak:

iraila / urria / azaroa

MARTXOA

Aitortzen diren hilak:

abendua / urtarrila / otsaila

EKAINA

Aitortzen diren hilak:

martxoa / apirila / maiatza

IRAILA

Aitortzen diren hilak:

ekaina / uztaila / abuztua

PERTSONA 2. TALDEAN BADAGO:

ERE-DBE-038 ereduaren aurkezpena:

URTARRILA

Aitortzen diren hilak:

urria / azaroa / abendua

APIRILA

Aitortzen diren hilak:

urtarrila / otsaila / martxoa

UZTAILA

Aitortzen diren hilak:

apirila / maiatza / ekaina

URRIA

Aitortzen diren hilak:

uztaila / abuztua / iraila

PERTSONA 3. TALDEAN BADAGO:

ERE-DBE-038 ereduaren aurkezpena:

OTSAILA

Aitortzen diren hilak:

azaroa / abendua / urtarrila

MAIATZA

Aitortzen diren hilak:

otsaila / martxoa / apirila

ABUZTUA

Aitortzen diren hilak:

maiatza / ekaina / uztaila

AZAROA

Aitortzen diren hilak:

abuztua / iraila / urria



Garrantzitsua!

Hileko diru-sarreratzat joko diren kontzeptu berriak daude; besteak beste:

- Azpierrentamenduak.
- Aurreko urteko abenduaren 31n banku-kontuetan zeuden batez besteko saldoen 3000 €-tik gorako zenbatekoei legezko interesak aplikatuz lortutako zenbatekoa, 12 hilean hainbanatua.
- Higiezinaren katastro-balioaren % 4, 12 hilean hainbanatua. Ez dira aintzat hartuko ohiz kanpoko baliorik ez duen ohiko etxebizitza bat, garaie bat eta trasteleku bat.

DSBEari buruzko informazio
gehiago edo azalpenik behar
izanez gero...

945 160 600

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren
webgunea:

www.lanbide.euskadi.eus

Dagokion Lanbideren bulegoa.
correspondiente.

